



BASABURUKO UDALA  
31866-Jauntzarats (Nafarroa)

## BANDOA

Covid-19

### KORONABIRUS-A /CORONAVIRUS

Coronavirus-ak sortutako ez ohiko egoeraren ondorioz, eta Nafar Gobernuak argitaratutako gomendio berezietan oinarrituta, ondorengo jakinarazi nahi dio udalak herritar orori:

Herritarren osasuna eta komunitate osoarena lehentasuna da udal honentzat. Horregatik, eta kontuan hartuta Basaburuko populazioaren kopuru esanguratsua arrisku taldeen barne egon daitekeela, birus hau zabaltzea errazten dituzten egoerak ahalik eta gehien saihestuko ditugu. Honela, garbitasun ohiturak areagotzea gomendatzen dugu (eskuak maiz garbitu) eta jende multzoak ahal den neurrian ekiditea, betiere segurtasun distantziak mantenduta. Horregatik,

- Udal Haur Eskola itxita egonen da martxoaren 16tik eta gutxienez 15 egunez.
- Basaburuko Udalak jendaurreko arreta eta tramiteak telefonoz eta telematikoki egingen ditu, astelehena martxoaren 16tik hasita eta gutxienez hurrengo 15 egunetan, ohiko jendaurreko ordutegian (9:30-13:30).
- Jendea biltzen dituzten gune publikoak itxiko dira: Kiroldegia, Apeztegierriko ganbara, Aizarozko Kultur Etxeko areto nagusia eta Basadin elkartearen egoitza, martxoaren 16tik eta gutxienez 15 egunez.
- Udalak antolatutako jarduera kolektiboak bertan behera geldituko dira, hurrengo 15 egunetan ere: Bardoak emanaldia, Yoga, Aktibatu eta bestelakoak.
- Etxean bakarrik dauden edo beharra duten pertsonen laguntza emateko prestutasuna agertzen dugu, gure Gizarte Zerbitzuen bitartez (948 305353) edo udalera deituz (948 503035).

GU ZAINDUZ BESTEAK ZAINTZEN DITUGU. JOKATU  
ARDURAZ, ZAINDU GAITEZEN.

Como consecuencia de la situación de emergencia creada por el Coronavirus, y tomando como referencia las recomendaciones de ,Gobierno de Navarra, este ayuntamiento considera:

Para este ayuntamiento es prioridad la salud de las personas y de toda la comunidad. Por ello, y teniendo en cuenta que un elevado número de habitantes puede estar entre los grupos de riesgo, evitaremos en todo lo posible situaciones que puedan facilitar la propagación de este virus. Así, recomendamos extremar las medidas de higiene (lavarse frecuentemente las manos) y evitar en lo posible los grupos numerosos de gente, manteniendo siempre la distancia de seguridad. Por todo ello,

- La escuela infantil municipal permanecerá cerrada desde el lunes 16 de marzo y al menos durante los quince días posteriores.
- El ayuntamiento permanecerá cerrado al público y los trámites se realizarán por teléfono o telemáticamente, en horario de atención al público (9:30-13:30).
- Los locales públicos que reúnan gente se cerrarán: Polideportivo, Apeztegierriko ganbara, Aizarozko Kultur Etxea ,local de Basadin, de hoy en adelante al menos durante 17 días.
- Se suspenden también las actividades programadas por el Ayuntamiento: Bardoak, Yoga, Aktibatu etc.
- Mostramos nuestra disposición para ofrecer ayuda a aquellas personas que se encuentren en situación de necesidad, bien a través de SERvicios Sociales (948305353) o llamando al ayuntamiento (948503065).

CUIDÁNDONOS CUIDAMOS A LOS DEMÁS.

Basaburuan, 2020ko martxoaren 13an.

Esther Lacasta Perez-Ilzarbe, ALKATEA

